

ZER ETE DA GIZONA?

Jainkoak sortutako izaki bat da gizasemea; gorputz bat eta arima bat daukaz; azken au, Jainkoaren antz eta irudira egiña da. Espiritua dogu, ba, illezkor, adimenez eta naimen azkez jantzia.

Arimea ez da gero espiritua adierazteko beste itz bakan bat. Abereak be arimea dabe, baiña arein arimak ez dira espiritu. Gizonaren arimea da bakar-bakarrik espiritu; gizonagan dago arimea espirituzko era bakarrean.

Arimea bereizteko, bizi-sustraia dala esan oi dogu, bizidun gorputzean. Aingeruak, beraz, ez dira arima; areik ezin dabe bizkor-azogorputzik. Abere ta piztiak, ostera, arimea dabe, naiz-ta gaidun (material) edo sumagarria.

Giza-animea da, azken oiñarri lez, berezia ta mugatua, gure gorputza indartzen dauana, eta guk beronen bitartez sentidu oi dogu, baita oldoztu, pentsatu ta gura izan be.

Zer da giza-pertsona bat? Arimearen eta gorputzaren batasuna. Espirituzko zer bat dozu arimea, berez be izateko gai dana: arimea bizi da, iragarrita dakigunez, eriotzearen eta gorputz-biztueraren bitartean be; berezko egokiera dau, eta bear-izana gorputzean bizi izateko.

Gorputzak ezin dau bizi onetan egitekorik kaskarrena be arima barik osotu, ezta arimeak be eziña dau ezertxo burutu gorputzetik kanpo: biak osotzen dira.

Arimak ez datoz odolez edo erentziz. Jainkoak berak sortua da arima baxotxa, ta sortze-unean bertan gorputzari erantzi ta lotua.

Espirituzko arima bat dau gizonak

Ikus, emen daukagu agiriko diferentzia bizi dan giza-soiñaren artean eta illotz geratu dan gorpu baten artean. Zek dagi diferentzi au? Arimeak. Arimea da gorputz biziduna autsera biurtzetik jagoten dauan zer bakarra, Egin-sustrai bat egon bear naitaez egite baxotxaren aurretik. Gizonagan, beraz, ardatz bat izan bear pentsatu ta nai izateko. Oñarri, sustrai naiz ardatz ori ezin daiteke izan kimikazko zerbait, bestela jakitun eta zientzilariak aurkitu eben onezkero. Baiña beste zerbait da espirituzko arimea, jakitunen azterketa-lanetik kanpo dagoana: ez da aurkitzen, ez, kimi-azter-bidean.

Gaiki-sustraiak ezin lei sortu-azo espirituzko eragikunik; gizonaren arimak, barriz, espirituzko egintzak daukaz; ezin daiteke, beraz, gaikia, gauza materiala bakarrik izan. Ba-dago beste zerbait.

Egunero burutu oi ditugu pentsamentu soillak, gogai (ideia) orokorrak daukaguzala erakusten daukuen oarkizunak; esate baterako, txakurra abere zintzoa da, diñogunean. Olako esaera ta aburuak osotzean, guk ez dakargu burura txakur berezi bat, onelako naiz arelako kolore, kaizu, neurri ta ibilkera apartekoa nunbait; guk, olan itz-egiteko, «txakur» izanak adierazten daukuna artzen dogu ta gogotan darabilgu guk geure zentzunez ikutu ezin dogun gauza bat. Ideia, geure adimenean, espirituzko zerbait dogu.

Era berean egin oi dogu geroa gogora ekarriaz be, naiz izakizunak, jazotekoak, edo aalbideak antzat artuaz, naiz leen-esanetatik lojikazko ondorenak atereaz, naiz espirituzko gauzen ezagutzeak egiñaz eta argibideak antolatuaz, eta abar.

Asmatzen dago Mikel. Zernaitako gauzak erabil leikez buruan. Bere burua ta buruan darabillena gauza bi dira; konturatzen da. Baita ikusi be ba-dala eragille bat atzean nunbait; gaiak (materiak) osoro ezin dauan jokabide bat, prozesu bat. Pianu batek, adibidez, ezin dau berenez jo, ezta begiak be eurenez ikusi, edo-ta aizto batek berenez

ebagi. Beste norbait edo zerbait bear dabe oneik, eragille lez, zeozet egin al izateko, asi ta amairaiño egintza bat eroateko.

Il-eziña da arimea

Gizonaren arimea, bada, espirituzkoa da. Ez da zatikaz egiña, zati banako ta bereizgarriz osotua baiño. Orregaitik, gorputza illotz biurtuta be, arimea ezin daiteke usteldu, ezta il-azo be munduko izakiz. Bizia izteko bide bakarra, Jainkoak ezereztuko ba'leu, izango litzateke, baiña au Aren betiko jakituri, ontasun eta zuzentasunaren aurka legoke.

Beste aldetik, zorion betea opa dau edozein gizasemek. Gurari onek bakarrik kuku ba'legio gizonari, gizonaren izatea Jainkoak akas-dun, makets eta ez-oso sortu ebalu, esango genduke. Aren jakituriak eta zuzentasunak eskatzen dauku: giza-izatek ernetako gurariak berrez izan bear dauala, bere azken-itura, jo-mugara eltzeko lain. Beste itz batzutan, zoriontasun osoa da Jainkoak gizonari ipiñi dautsan xede ta asmoa; zoriontasun ori, beraz, Jainkoaren naiari jarraituz lan dagian edozeiñek lortu bear dau. Alan eta guzti be, mundu onetan ezin daiteke zorion bete-betea eskuratu; orixegaitik, geroko bizitza bat egon bear, zoriontasun au bere bete-betean eukiko doguna.

Beste proba bat giza-arimea illezkor dala ikusteko. Guztiok uste ta gura dogunez, Jainkoaren zuzentasunak eskatzen dau etorteko dan bizitza bat, mundu ontako bizikera ez-bardiñak zuzen-azteko. Legelari Guren bat eskatzen dau gure barruak, ona saritu ta okerra zigor-aziko dauana. Bizitzaldi onetan, baiña, gaitza dabil geien bat garaille, ona zapaldua dalarik. Zernaik eriotza dauala azken esatea, deungaroak esaka, Jainkoari irain egitea besterik ez da, Jainkoaren zuzentasun amageari koskak aurkitzea.

Zer ote diñoe Liburu Santuak?

Gizonaren arimea espiritu ta il-eziña dala dirauskuen esakunez beterik dagoz Liburu Santuak. «Jainko Jaunak lurreko buztinez eratu eban gizona, eta bizi-arnasa bota eutsan arpegira, eta gizona arima bizidun biurtu zan» (As. 2, 7).

«Zintzoen bizia (arimea) Jainkoaren eskuetan dago, eta ez dautsa neke-oiñazeak ikutuko. Ez-jakiñen begi-aurrean illak zirudien..., baiña

baketan dagoz areik... Itxaropena illezkortasunez batea da» (Jak. 3, 1-4).

Elias eta Eliseo'ren eriotzatik bizirako jauzia, esaterako, eziña litzakean oso-osorik arimea izatean geratu ta barrero gorputzera bihurtzeko gai izan ezpalitz. Testamentu Zaarrean, orrezaz gainera, argi ta garbi agiri da judeguak beti siñistu ebela beste bizitzan. Areik galterazorik eukien, adibidez, espiritu eriozkiñakaz artu-emonen sartzeara.

Emen daukagu baita Ezekiel igarleak izan eban ikuspen ospetsua be:

«Jaunaren eskua gainean ezarri yatan, eta Jaunak irudipenez ateratu ta azurrez beteriko zelai baten erdira eroan ninduan... Ugari ziran ibar-gañean egozan azurrak, guztiz igartuta danak. Orduan esan eustan: «Gizaseme, azurrok biztu al izango ete?» Eta nik: «Ori, Jauna, Zeuk bakarrik dakizu». Eta auxe agindu eustan: «Azurroi igarpen au egiezu: Azur igarrok, entzun Jaunaren berbea: Auxe dirautse Jaunak azurroi: Espiritua ixuriko dautzuet, bizi barria izan dagizuen». Iragarri bena, ba, agindu izan yatan; iragarten niarduala, trumoiak jo eban, gero lur-iakara izan zan, eta azurrak alkartu egin ziran, azur bata besteaz. Orduan Jaunak niri: «Igarpen egiozu arnasari, esanez: Auxe diño Jaunak: Zatoz, arnasa, lau aizeetatik eta putz-egin ildakunon gainera, bizi barritu daitezzen». Iragarri neban agindu izan yatan. Areikan arnasea sartu zan, eta, bizi barrituta, zutik jarri ziran». (Ezek. 37, 1-10).

Esakunak deritxon liburuak aitatzen dau onen eta gaiztoen beste munduko bizitza. Onela diño: «Gaiztoa, bere gaiztakeriak iraultzen dau; zintzoak, barriz, eriotzaraiño dauka uste ona» (Esak. 14, 32).

Geien erabilli oi dan idazkuna edo textua; Makabeotarren II Liburutik artua da: «Judas'ek, diru-batzea egiñik, bi milla drakma zilarrezko bialdu zituan Jerusalem'era, pekatuagaitiko ordain-oparia eukiñi egien. Egite on eta ederra, illen biztu-bearretik sortua. Izan be, illak berbiztuko ez dirala uste izan ba'leu, utsean eta alperrik izango litzakean ildakoentzat otoitz egitea. Uste eban, gainera, zintzoro il izan danantzat sari eder bat egoala gertu. Asmo santu ta osasungarria, benetan» (Mak. 12, 42-45).

Testamentu Barrian arimea gorputzetik bereiz ikusia da beti, eta soin illaren ostean be biziko dalakotzat euki izan dabe: «Ez izan, soiña ilten dabela, arimea ezin il dabenen bildur; arimea ta gorputzazu-lezara jaurti daikezanaren bildur, bai, izan zaiteze» (Mat. 10, 11).

Paul deunak onela: «Gizonetan nor da giza-barrua ezagutu daikenik, norberagan dagoan giza-espirtua izan ezik?» (I Kor. 2, 11).

Sarri itz-egiten dausku gure Jaunak geroko biziari buruz. Ona adibide batzuk: «Lan egizue alegiñez, eten barik, betiko bizitzaraiño irauten dauan janaria lortu dagizuen, Gizonaren Semeak emongo dautzuen eskuratzeko» (Jo. 6, 27).

«Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da» (Jo. 6, 51).

Eta barrero: «Izan be, Jainkoak, gizadia maite-maite izan dau-ta, bere Seme Bakarra emon dautsa, Ari siñisten dautsona gal ez dadin, baiña betiko bizia izan dagian» (Jo. 3, 16).

Kristok gurutzean lapur biren erdian josirik egoala: «Bene-benetan dirautzut: gaur Neugaz paradisuan izango zaitut» (Luk 23, 43).

Itz batean, gure Jaunak bere mezu osoa, bere bizi guztia, bere neke-oiñazeak, baita bere eriotza be, betiko biziaren oiñarri gainean jasorik itxi euskuzan. Gerokoa, Arek sarri esan ebanez, egiazko bizia, sendo, eder eta iraunkor.

Paul deunak be edertoago eziñik:

«Turuta joko da, ta illak illezkor jagiko; gu aldatu egingo gara. Ustelkor onek ustel-eziñaz jantzi bear dau, ta ilkor onek il-eziñaz. Beraz, ustelkor au ustel-eziñaz ta ilkor au il-eziñaz jazten danean, orduan beteko da Idatzia: «Eriotza garaiak iruntsi dau» (I Kor. 15, 52-54).

Oker ez ebillen, ba, Voltaire au idatzi euskunean: «Materialismua da zentzun-bagekeri guztietatik egundaño koena; eta gizonaren adime-nean sartu izan dan zorakeririk aundiena».

Lur-bizitzaldian saiatu bearra dogu geure arimak betikotasunera-ko gai egiten. Margolariak, lauki osoa egin aurretik, sarri beintzat, zati txikiagoak osatu oi ditu; orrelaxe gure arimak be, beti-beti irau-ngo dauan bizitzarako geure pentsamentu, itz, bete-bear eta egin-bearra-kaz oreturik, soiñeko eder bat eratu bear dau.

Azkeak gara

Ona sariztatua izango da ta gaitza zigortua; gizona azke, libre dala adierazo nai dau onek, bere eskuko dala ona egiteko naiz txarretik iges egiteko. Begikoen yakona autatu leike edozein gizonek.

Azke da munduan bizi dalarik ona naiz txarra beretzat aukeratzeak.
Bere eskuetan dauka autapena egitea.

Au naiz bestea egin aurretik, aztertu egin oi dogu gauzea, ta ebatzi; egiterakoan, aukeratzea osoturik. Abazteak eta aukeratzeak baiña, gizonaren azke izatea adierazten dau. Beronek mugatzen dau zelako motibu-sailla daukan aurrera joteko, eta berak ondo daki motibu edo zergaiti orrean aurrean ezer ez dagian tresna bat. Ba-daki gaiñera, zerbait aukeratzeakoan, beste zerbait be, ots, beste bide bat be bardintsu aukeratu leikela. Ba-daki ori.

Egiteko, lege, bete-bear, erantzukizun, zigor, sari, irabazi, itz guttiok eta beste askok askatasun morala eskatzen dabe. Gizadiaren oneritxi ta etsipen orokorrak, guztienak, garai ta naziño danetako legeak eta literaturak testigu, ao batez darakuskue ba-dala bete-bearrik. Laster dakigu nor dan gaizkillea ta nor ergel naiz aizeak jota dagoana. Egintza on bat dagigunean, barruak dirausku ondo egon dogula; txarra egin dogunean, ostera, barneko arrak aitzen emoten dausku gaiztegiñaren zimikoa.

Gizona bere oldo kun, pentsamentu, berba ta egiteai erantzun bearrean aurkitzen dala Shakespeare ingles teatrulari bikaiñak argi ta garbi adierazten dausku Jagoba'ren ezpanetan jarten dabezan itz onen bitartez:

«Geure erruz da —diño— gu onango naiz olango izatea. Beratzak dira gure gorputzak; gu, barriz, baratzon baratz-zaiñak; animal landatu naiz urazak erein, patana sartu naiz eskaiak atera, onetako bedar-motea landatu naiz askotarikoai eurak euretara azten itzi. Naiz satsa ondo botata emokor egin, batera naiz bestera izan, on geure eskuan dago» (*Otel*, I Ekit., III Agerraldia).

Zer esan nai dau biziak?

Gizaseme oro, gura izan naiz ez, eriotz ostean be biziko da betikoz. Bere gero beti-betikoia, orain dagian aukeratzean datza. Onen ondorioa dozu bizi betikoia, arpegiz arpegi Jainkoa ikuste gozo-asegintzuan; edo-ta illunpetako betiraunean, Jainkoagaz arerio. Ba-da alde bizikera batetik bestera.

«Maixu, zer egin bear dot nik betiko bizia jaristeko?», auxe da

guk guztiok egin daroagun itauna, Ebanjeliko gazteagaz batera (Mark. 10, 17).

Esan dogu: guztiok bait daukagu arima illezkor bat, ona naiz txarra aukeratzeako gauza dana. Beraz, beti-betikoiz bizi izateko egin behar gara.

Kristau-Ikasbideak onela: «Jainkoak egiña naz, mundu onetan bera ezagutuz eta maitatuz, Berari zerbitzu ona egiteko; eta bestean, Beragaz batean, egundo amaitzen ez dan atsegiñean bizi izan nadin». Erin nengike Jainkoa ezagutu, Bera maite izatera bultz-daragidan zirkiña somatu barik. Ezin nengike A maite izan, Aren zerbitzari zintzo izan ezik. Ezin nengike A zintzoro otseindu, betikotasun osoa Beragaz bizi izateko saria artu bage.

Emindik atera daikegunez, ezaugera —izatez goiko ezaugera, fedea deritzoguna batez be— da ontan gauzarik garrantzi aundikoena. Jainkoa ezagutzea da, izan be, gizonak beti begi aurrean zeregin beñe-na lez erabilli bear dauana.

Autsa besterik ez da gorputza; igaroko dira munduko gauzak; baiña Jainkoa ta arimea illezkor dituzu; bi oneik betierean bizi izango dira. Arimea zorionerako egiña da, Jainkoaz nunbait. Zer onek uts egin ezkeru, euron jomuga osoa porrot egiñik geratuko litzateke. Gizasemeari zer dautso, orduan, ludiko gauzok —osasun, gora-nai, gutitasun eta abar— Jainkoa ta arimea baiño inportanteagoak bai litzan erabiltea?

Betiko bizitzak merezi dau buru-ukapenik». Zer da gizona, naizta onena, mundu guztia eskuratuta be, azkenik bere arimea gal ba'leñ?», diñosku gure Jaunak.

Eta auxe da, izan be, guk iñoiz aaztu barik geute buruari egin bear dautsagun itauna.

A. O.